

MEMORIA AKADEMIKOA
MEMORIA ACADÉMICA

INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA-KRIMINOLOGIAREN EUSKAL
INSTITUTUA



IVAC-KREI

2025



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

Aurkibidea

I. AURKEZPENA	4
II. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA.....	7
1. Ardatza. IKERKETA: Institutuaren ikerketa profila bermatzea eta sustatzea	9
2. Ardatza. PRESTAKUNTZA: Prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa mantentzea.....	9
3. Ardatza. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK: Komunikazioa, irudia eta antolaketa hobetzea	10
III. 2025eko KUDEAKETA PLANA. Ekintza eta emaitzak	10
1. Ardatza. IKERKETA: Institutuaren ikerketa profila bermatzea eta sustatzea	11
1.1 Helburua: Ikertzaileen prestakuntza sustatzea	11
1.2 Helburua: Bikaintasuneko ikerketa sustatzea, diziplina anitzekoa, jarduera zientifikoa nazioartekotzen lagunduko duena.....	14
1.3 Helburua: Gizartearen ezagutza eta berrikuntza eskaerei ikerketaren bidez erantzutea	20
2. Ardatza. PRESTAKUNTZA: Prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa mantentzea	43
2.1 Helburua: prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa garatzea, bai aurrez aurrekoa, bai online, egungo ingurunearen beharrei etorkizuneko ikuspegiarekin erantzungo diena	43
2.2 Helburua: Prestakuntzaren nazioartekotzea bultzatzea, Akitania ardatzeko unibertsitateekin parte hartuz, lankidetzat-hitzarmenak eginez eta daudenak indartuz	45
3. Ardatza. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK: Komunikazioa, irudia eta antolaketa hobetzea	46

3.1 Helburua: IVAC-KREIren komunikazioa eta irudia hobetzea	46
3.2 Helburua: gastuaren efikazia eta efizientzia hobetzea eta baliabideak lortzeko bide berriak erraztea.....	48
3.3 Helburua: Institutuaren antolaketa eta kudeaketa etengabe hobetzeko prozesuak sustatzea	48

I. AURKEZPENA

Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI) Antonio Beristain Ipiña irakasle eta honoris causa doktorego ugariko doktore (aurrerantzean, h.c. dok. ugariko doktore) jaunak sortu zuen 1976. urtean, eta formalki aitortu zen 1978ko uztailaren 14ko MArek bidez (78-11-4ko BOE).

IVAC-KREI unibertsitateko ikerketa institutu bat da, Universidad Del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen barrukoa. Fakultate eta sail arteko izaera du, eta Universidad Del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eta bere arautegiak (2013ko urtarrilaren 16ko Ebazpena, Universidad Del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari orokorrarena; 2013ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.) ematen dioten autonomiaz jarduten du. Institutuaren lehentasunezko jarduerak zientzia kriminologiko eta biktimologikoen arloko ikerketa eta prestakuntza espezializatua eta diziplinartekoa dira, eta, horrez gain, azterketa sustatzeaz, kanpo kontsulta egiteaz eta ezagutza gizarteari transferitzeaz arduratzen da.

Proiektuak aurrera eramateko Europa mailako presentzia indartzen du, eta nazioarteko sareetan sartutako dago, helburu izanik erreferente izatea ikerketaren bikaintasunagatik eta gizarteari eskainitako zerbitzuagatik.

Institutuko egungo zuzendaria Gema Varona Martínez irakaslea da, IVAC-KREIko ikertzaile iraunkorra eta Biktimologiako Munduko Elkarteko presidentea, besteak beste. Idazkari akademiko zenak, Leire Berasaluze Gerrikagoitiak, bere ekimenez kargua utzi ondoren, 2025eko otsailaren 14an Juan Aldaz Arregui irakasle doktorea izendatu zuten IVAC-KREIko idazkari akademiko.

Institutua zientifikoki lotzen da Kriminologiaren Nazioarteko Sozietatearekin, NBEren organo aholku-emalearekin, eta harekin lankidetzaz hitzarmen bat du. Hitzarmen horretan oinarrituta sortu zen Delinkuentzia, Marjinalitatea eta Gizarte Harremanei buruzko Nazioarteko Ikerketa Zentroa (DMS. *International Research Center*), 2006ko hasieratik César San Juan Guillén irakasle doktoreak zuzendua.

Unibertsitateko berrogei urte baino gehiagoko ibilbidean, IVAC-KREIk lan asko eta askotarikoak egin ditu, goi-mailako ikerketakoak, irakaskuntzakoak eta unibertsitate zabalpenekoak, helburu hauekin:

1. Diziplina anitzeko eta diziplinarteko arazo kriminologikoen **ikerketa**, lanketa eta tratamendu zientifikoa garatzea.
2. UPV/EHUko ikasleen **prestakuntza** zientifikoa laguntzea.
3. UPV/EHUko sailek lotutako gaietan egiten dituzten jardueretan laguntzea.

4. **Bilera zientifikoak**, ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea.
5. Irakasle, ikertzaile eta ikasleen trukea bultzatzea beste ikastegi eta unibertsitate batzuekin, eta **elkarlaneko proiektuetan** parte hartzea.
6. Lankidetzan jardutea nazioarteko eta estatuko erakunde publiko eta pribatuekin, **aholkularitza**, irizpen, txosten eta aholku orokorren bidez, gure inguruan arlo honetan sortzen diren **arazoak argitzeko**.
7. Arlo horietan konpromisoa duten irakasleei beren jardueren esparruan egiten diren ekarpenetarako sarbidea erraztea.
8. Irakaskuntza eta ikerketa jardueren **aprobetxamendu soziala** sustatzea, interesa duten pertsona eta erakunde guztiei irekita.

Jarraian, IVAC-KREIko 2025eko kideen zerrenda jasotzen da:

Irakasle eta ikertzaileak:

- Juan Aldaz Arregui doktorea, Donostiako Zuzenbide Fakultateko Soziologia eta Gizarte Lana Saileko irakasle agregatua. Helbide elektronikoa: juan.aldaz@ehu.eus
- Leire Berasaluze Gerrikagoitia, Zigor Zuzenbideko irakasle laguntzaile doktorea. Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: leire.berasaluce@ehu.eus
- M^a Dolores Bollo Arocena doktorea, Donostiako Zuzenbide Fakultateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren, Nazioarteko Harremanen eta Zuzenbidearen Historiaren Saileko irakasle titularra. Helbide elektronikoa: mariadolores.bollo@ehu.eus José Luis De la Cuesta Arzamendi h.c. mult. doktorea, Zigor Zuzenbideko katedratuna. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: joseluis.delacuesta@ehu.eus. IVAC-KREIko zuzendaria 2023ko azaroaren 1era arte; GICCAS taldeko ikertzaile nagusia.
- Iñaki Esparza Leibar doktorea, Zuzenbide Prozesaleko katedraduna., Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: inaki.esparza@ehu.eus.
- Francisco Etxeberria Gabilondo doktorea, Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra. Medikuntza eta Odontologia Fakultatea, Donostiako Irakaskuntza Unitatea. Helbide elektronikoa: paco.etxeberria@ehu.eus
- Leyre Hernández Díaz doktorea, Zuzenbide Penaleko irakaslea. Zuzenbide Fakultatea (Leioa). Helbide elektronikoa: leyre.hernandez@ehu.eus Izaskun Ibabe Erostarbe doktorea. Psikologian doktorea eta Portaera Zientzien Metodologiaren arloko UPV/EHUko irakasle osoa. Helbide elektronikoa: izaskun.ibabe@ehu.eus
- Idoia Igartua Laradogoitia doktorea, Zigor Zuzenbideko irakaslea. Zuzenbide Fakultatea (Leioa). Helbide elektronikoa: Idoia.igartua@ehu.eus
- M^a Lourdes Labaca Zabala doktorea, Donostiako Zuzenbide Fakultateko Estatuaren Eliza Zuzenbideko eta Erromatar Zuzenbideko Saileko irakasle agregatua. Helbide elektronikoa: marialourdes.labaca@ehu.eus
- Norberto J. De de la Mata Barranco h.c. mult. doktorea, Zigor Zuzenbideko katedraduna. Zuzenbide Fakultatea (Leioa). Helbide elektronikoa: norbertojavier.delamata@ehu.eus

- Miren Odriozola Gurrutxaga doktorea, Zigor Zuzenbideko irakasle agregatua. Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: miren.odriozola@ehu.eus
- Alberto José Olalde Altarejos doktorea, Soziologia eta Gizarte Laneko irakasle agregatua. Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Araba). Helbide elektronikoa: albertojoze.olalde@ehu.eus
- Ana Isabel Pérez Machío doktorea, katedraduna (akr.) eta Zigor Zuzenbideko irakaslea. Donostiako Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: anaisabel.perez@ehu.eus
- Alberto Saiz Garitaonandia doktorea, Zuzenbide Prozesaleko irakasle agregatua. UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatea. Helbide elektronikoa: alberto.saiz@ehu.eus
- César San Juan Guillén doktorea, Gizarte Psikologia jakintza arloko irakasle titularra. Helbide elektronikoa: cesar.sanjuan@ehu.eus.
- Isabel Trespaderne Beracieto doktorea, Erizaintzako UEko irakasle titularra. Erizaintzako Unibertsitate Eskola (Donostia). Helbide elektronikoa: mariaisabel.trespaderne@ehu.eus
- Gema Varona Martínez doktorea, IVAC-KREI.ko ikertzaile doktore iraunkorra. Helbide elektronikoa: gemmamaria.varona@ehu.eus

Ikertzaile kontratatatuak

- Isabel Germán Mancebo doktorea
Zuzenbideko doktorea. Filosofia, Zientzia eta Balioetan doktorea.
Zuzenbide Pribatuan eta Zientzia Kriminaletan doktorea.
Helbide elektronikoa: isabel.german@ehu.eus
- Estefanía Ocariz Passevante doktorea
Psikologian doktorea. Psikologia Juridikoko masterra.
Helbide elektronikoa: estefania.ocariz@ehu.es
- Ane Viana Salinas doktorea.
Zuzenbidean doktorea.
Helbide elektronikoa:
ane.viana@ehu.eus
- Jaseff Raziel Yauri Miranda
doktorea. Politika Zientzietan
doktorea. Helbide elektronikoa:
jaseffraziel.yauri@ehu.eus

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak

Doktorego aurrekoak

- María Ochandorena Alba andrea
Kriminologian graduduna eta Ziberdelinkuentziako Masterra
Kontratatua, Zientzia Ministerioaren proiektuan
Helbide elektronikoa: maria.ochandorena@ehu.eus
- Malena Rocío Maceira
andrea Zuzenbidean
graduduna
UPV/EHUren doktorego aurreko
kontratua Helbide elektronikoa:
malenarocio.maceira@ehu.eus
- Devi Yerga Larrinaga andrea
Kriminologian graduduna
Eusko Jaurlaritzako doktorego
aurreko kontratua Helbide
elektronikoa: devi.yerga@ehu.eus

Administrazio eta zerbitzuetako langileak

- Jorge López Morán
Helbide elektronikoa: jorge.lopez@ehu.eus

II. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

2024an hausnarketa estrategikoko parte hartze prozesu berri bat amaitu zen, gure Institutuaren 2024-2028 aldirako Plan Estrategikoa onartuta. Bertan deskribatutako estrategiak eta adierazleak UPV/EHUren 2019-2023ko Plan Estrategikoarekin lerrokatzeko ahalegina egin da, beste dokumentu batzuen artean. 2024. eta 2025. urteetan, KREIko Kontseiluak Urteko Kudeaketa Planak onartu ditu.

2019-2023 Plan Estrategikoak adierazten zuen bezala, IVAC-KREIk bikaintasunaren eta erantzukizun sozialaren irizpideekin kudeatutako Institutua izateko konpromisoari eusten dio, eta, bereziki, adierazitako aldirako honako hauek lortzen ahaleginduko da:

9. Finantzaketa-esparru egonkorra;
10. ikertzaile iraunkorren lanpostu berriak;
11. ikerketa eta irakaskuntza jarduera etengabe hobetzea.

Nolanahi ere, IVAC-KREIren jarduera printzipio eta balio multzo baten barruan

- **Errealitatea ezagutzea**

IVAC-KREIk ezinbestekotzat jotzen du bere azterlan eta ikerketetan errealitatearen ezagutza egokienetik abiatzea, arlo kriminologiko eta biktimologikoetan dituen gabeziak detektatzeko eta arrazoizko politika kriminal baten garapena bultzatzeko

- **Diziplina anitzeko integrazioa**

IVAC-KREIren nortasun-ezaugarria da fenomeno kriminal eta biktimologikoaz eta horiek praktikan lantzen dituzten profesionalen prestakuntzaz askotariko ikuspegi zientifikoetatik arduratzen diren guztien arteko lankidetza eta integrazioa sustatzea.

- **Bikaintasuna bilatzea**

IVAC-KREIren jardueraren ardatz nagusia maila eta kalitate handieneko ikerketa eta prestakuntza jarduera hedatzea da, ezagutza kriminologikoari eta biktimologikoari egindako ekarpenei dagokienez, eta ezagutza zientifikoa ahalik eta gehien garatzen eta aplikatzen eta hedatzen laguntzea.

- **Gizarteari zerbitzu ematea**

IVAC-KREIren bokazioa gizartearentzako zerbitzua da, bere ikerketa, azterlan, eztabaida eta hausnarketen hartzailea (eta askotan eskatzailea) baita.

- **Europara eta nazioartera zabaltzea**

Institutuak lankidetza-harreman egonkorak ditu Kriminologiaren Nazioarteko Elkartearekin, Europako Elkartearekin, Zigor Zuzenbidearen Nazioarteko Elkartearekin eta bere jardueraren arloan prestigioa duten beste erakunde batzuekin. Horren isla gisa, atzerriko beste unibertsitate eta erakundeen jardunaldi, prestakuntza, jarduera eta proiektu ugaritan parte hartzen du.

Gainera, Gema Varona Mexikoko Kriminologia Elkarteko ohorezko kide izendatu dute, bai eta zenbait nazioarteko aldizkarietako argitalpen batzordeetako kide ere, eta José Luis de la Cuestak Zigor Zuzenbidearen Nazioarteko Elkarteko ohorezko presidente izaten jarraitzen du. Bestalde, Norberto de la Mata honoris causa doktore izendatu dute Latinoamerikako hainbat unibertsitatek.

Azkenik, KREIk Europako proiektu eta proposamen ugariarekin bat egin du.

KREIren balioen artean, hauek nabarmentzen dira:

- **Askatasuna eta aniztasuna**

IVAC-KREIk katedra eta ikerketa-askatasuna eta eztabaida zientifikoa defendatzen eta sustatzen ditu, eta kideen aukera ideologikoen aniztasunak aberasten du erakundea.

- **Errespetua eta elkarriketa**

IVAC-KREIk errespetua eta elkarriketa bultzatzen ditu gatazkak konpontzeko lehentasunezko bide gisa, eta giza eskubideen defentsan nabarmentzen da, bereziki zaugarrienen eta ahulenen defentsan, gero eta cultura aniztasun handiagoa dagoen gizarte batean.

- **Berrikuntza eta aurrerapena**

IVAC-KREI gizartearen ongizateaz arduratzen da eta ingurumena errespetatzen du, jarrera berritzaileetatik eta aurrerapenekoetatik politika kriminalari, penalarari, espetxe-politikari eta biktimologikoari buruzko eztabaida lasai eta arrazionalan laguntzen saiatuz.

- **Zientzia pertsonaren, justizia sozialaren eta bakearen zerbitzura**

IVAC-KREIk sinesgarritasun-irudi bat proiektatzen dio gizarteari, egiazko informazio arrazoituan eta konpromiso zientifiko eta akademikoan oinarritutako ekarpen zientifiko eta humanistan oinarritua, gizabanakoen eta herrien garapen ekonomiko, sozial eta kulturarteko baketsuago baten zerbitzura.

Bestalde, hauek dira **IVAC-KREIren ardatz estrategikoak**:

1. ardatza. IKERKETA: Institutuaren ikerketa profila bermatzea eta sustatzea

1. 1.1 helburua: Ikertzaileen prestakuntza sustatzea.
2. 1.2 helburua: Bikaintasuneko ikerketa sustatzea, diziplina anitzekoa, jarduera zientifikoa nazioartekotzen lagunduko duena.
3. 1.3 helburua: Gizartearen ezagutza eta berrikuntza eskaerei ikerketaren bidez erantzutea.

2. ardatza. PRESTAKUNTZA: Prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa mantentzea

1. 2.1 helburua: Prestakuntza jarduera berritzailea eta kalitatezkoa garatzea, bai aurrez aurrekoa, bai online, egungo ingurunearen beharrei etorkizuneko ikuspegiarekin erantzungo diena.
2. 2.2 helburua: Prestakuntzaren nazioartekotzea bultzatzea, Akitania ardatzeko unibertsitateekin parte hartuz, lankidetzat-hitzarmenak eginez eta daudenak indartuz.

3. ardatza. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK: Komunikazioa, irudia eta antolaketa hobetzea

1. 3.1 helburua: IVAC-KREIren komunikazioa eta irudia hobetzea.
2. 3.2 helburua: Gastuaren efikazia eta efizientzia hobetzea eta baliabideak lortzeko bide berriak sustatzea.
3. 3.3 helburua: Institutuaren antolaketa eta kudeaketa etengabe hobetzeko prozesuak sustatzea.

III. 2025eko KUDEAKETA PLANA. Ekintza eta emaitzak

IVAC-KREI Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) sailen arteko unibertsitate institutua da, eta bere lehentasunezko jarduerak zientzia kriminologikoen eta biktimologikoen arloko ikerketa, aholkularitza eta prestakuntza espezializatua eta diziplinartekoa dira. Era berean, ikerketa sustatzeaz eta jakintza gizarteari transferitzeaz arduratzen da.

Proiektuak aurrera eramateko Europa mailako presentzia indartzen du, eta nazioarteko sareetan sartutako dago, helburu izanik erreferente izatea ikerketaren eta irakaskuntzaren bikaintasunagatik eta gizarteari eskainitako zerbitzuagatik.

IVAC-KREIk bikaintasunaren, zerbitzu publikoaren eta erantzukizun sozialaren irizpideekin kudeatutako Institutua izateko konpromisoari eusten dio, urte anitzeko Plan Estrategikoaren ildotik, eta honako hauek azpimarratzen ditu:

- finantzaketa esparru irekia, anitza eta egonkorra;
- ikertzaile iraunkorren lanpostu berriak;
- eta ikerketa, aholkularitza eta irakaskuntza jarduera etengabe hobetzea, gizarte digitalizatu batera egokituta eta erronka demografiko, sozial bortitz eta klimatikoetan murgilduta.

IVAC-KREIren Urteko Kudeaketa Plana (UKP) Institutuaren helburuen arabera zuzendaritza-tresna da aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako. 2024-2028 Plangintza Estrategikoaren esparruan formulatutako helburuak betetzeko egin nahi diren jarduerak barne hartzen ditu, zeina 2025eko lehen hiruhilekoan ere eztabaidatu baita. Gainera, lortutako emaitzen ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiborako adierazleak zehazten dira, betiere erakunde publiko orok Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako

Helburuei dagokienez hartutako konpromisoekin bat etorritik.

Desberdinkeria globalaren, indarkeriazko polarizazioaren eta gatazka belikoen gorakadaren aurrean, IVAC-KREIk printzipio gisa sustatzen ditu errespetua eta elkarriketa, gatazkak konpontzeko lehentasunezko bide gisa, eta giza eskubideen defentsa nabarmentzen du, batez ere ahaztuen dauden taldeena, gero eta kultura anitzeko eta askotariko gizarte batean.

1. ardatza. IKERKETA: Institutuaren ikerketa profila bermatzea eta sustatzea

1.1 helburua: Ikertzaileen prestakuntza sustatzea

- Institutua doktorego aurreko eta ondoko beken ezarpen-zentro izan dadin sustatzea

2025ean, Institutuko irakasle eta ikertzaileek zuzendutako doktorego aurreko eta ondoko prestakuntza kontratuak dituzten ikertzaileen zerrenda hau izan da:

- **María Ochandorena Alba**, Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutura atxikitakoa. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren kontratua.
- **Malena Rocío Maceira**, Zuzenbidean graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutura atxikitakoa. UPV/EHUren kontratua.
- **Devi Yerga Larrinaga**, Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutura atxikitakoa. Eusko Jaurlaritzaren kontratua.
- **Jaseff Raziel Yauri Miranda**, doktorea (UPV/EHU), Kriminologiaren Euskal Institutura atxikitakoa. Eusko Jaurlaritzaren doktorego ondoko kontratua.
- **Talentua erakartzea bultzatzea**

Institutuak urtero bi ikerketa sari antolatzen ditu: Jean Pinatel Saria eta Antonio Beristain Saria.

- **Jean Pinatel Saria** 1992an sortu zen, urte luzez Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteko presidente eta IVAC-KREIko ohorezko kide izan zen Jean Pinatel euskal kriminologo handia gogoratzeko. Kriminologiaren esparruan egindako ikerketa sustatzera eta bultzatzera bideratuta dago, eta diziplina horrekin lotutako ezagutzak ulertzen eta hobetzen laguntzen duen lan zientifiko onena saritzen du. Saria zientzia kriminologikoen arloan beren ikerketa jardueragaratu nahi duten ikertzaile gazteei zuzenduta dago, gaurkotasuneko gizarte arazoei arreta berezia eskainiz.

2025eko saria Diana Teresa García egileak jaso du, *Cárcel y estigma: la realidad de las mujeres trans privadas de libertad en el sistema penitenciario español* izeneko lanarekin.

- **Antonio Beristain Saria** 2010ean sortu zen, gure maisu eta sortzaile Antonio Beristainen oroimenez. Antonio Beristain Katedrak egiten du deialdia, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan, eta diziplina horrekin lotutako

ezagutzak ulertzen eta hobetzen lagunduko duen lan zientifiko onena saritzea du helburu. 2025eko saria Cristina Sanchís Soler egileak lortu du, Esperientzia Traumatikoetako Biktimekin Lan Egitea graduondoko ikasleak, *Desvelar lo invisible en las invisibles: la victimización oculta en el victimario. Comprender el daño psicológico en dos casos de mujer y salud mental como primer paso hacia un horizonte de justicia restaurativa* izeneko lanarekin.

- **Ikertzaileen prestakuntza erraztea eta sustatzea, UPV/EHUK eta, hala badagokio, IVAC-KREIk berak eskainitako ikastaro eta prestakuntza ekintzen bidez, besteak beste, berariazko saioen bidez, ikerketako mintegi iraunkorretan**

Helburua da prestakuntza ekintzak sustatzea, hala nola akreditazioaren eta transferentziaren arloan eta ikerketako metodologiaren arloan, eta hainbat prestakuntza proposamen egitea Gipuzkoako Campuseko Bibliotekako Ikerketa Zerbitzu Orokorrei.

2025ean doktore gradua lortu dute hauek, kalifikazio altuenarekin:

- Ane Viana Salinas (otsailaren 18an): *Travesía en la vulnerabilidad: un estudio sobre las experiencias de victimización de los adolescentes y jóvenes migrantes sin referentes familiares en la Comunidad Autónoma Vasca*. Zuzendaria: Gema Varona Martínez.
- Leyre Padilla López (maiatzaren 22an): *Infancia, adolescencia y criminalidad en entornos digitales como desafío tecnosocial: polivictimización y estrategias de intervención*. Zuzendariak: Gema Varona Martínez eta Ana Eugenia Abasolo Tellería.
- Dario Solis: *Análisis jurídico y cualitativo de la aplicación de la suspensión del proceso sujeto a condiciones en los casos de violencia doméstica en la República de Panamá*. Zuzendaria: Gema Varona Martínez.
- Augusto Magno Huaroma: *La responsabilidad penal de las personas jurídicas*. Zuzendaria: Norberto Javier de la Mata Barranco.
- Sonia Annabella Girard: *Reconocimiento y protección internacional de los derechos humanos de las personas presas: sistemas y políticas públicas penitenciarias en Guatemala: una propuesta de mejora*. Zuzendaria: Ana Isabel Pérez Machío.

Horrez gain, doktorego aurreko eta ondoko ikertzaileak jaso dira, eta atzerriko ikasleek Marie Curie doktorego ondoko kontratuatarako eginiko eskaerak babestu dira. EHUKo Kriminologia Graduak ikasleak ere hartu dira praktiketan, ikerketa lanetan prestatzeko, bai eta beste unibertsitate batzuetako masterretako ikasleak ere.

- **Ikerketako mintegi iraunkorren dinamika indartzea**

IVAC-KREIk ikertzaileen mintegi iraunkorreko aldizkako bilerak egiten ditu bere baitan hainbat ikuspegi integratzen direla ziurtatzeko. Esperientzia hori 2008an sustatu zuen José Luis de la Cuestak, Institutuko zuzendariak, 2023ko urrira arte. Ikerketako mintegi iraunkorreko saioetan (gutxienez lau hilean behin), txostengileen (ikertaldeko kideen)

hasierako aurkezpenaren ondoren, eztabaida interesgarria eta jarrerren kontrastea egiten dira. Horietan, sortzen diren zalantzak argitzearekin batera, parte-hartzaileen ekarpena ere bilatzen da, bakoitzaren ikerketa ikuspegi nagusitik abiatuta. Esperientzia, gainera, bereziki emankorra dela frogatu da, taldean integratutako prestakuntzan dauden ikertzaileek aprobetxa dezaten.

2025ean mintegi hauek egin dira:

- 2025eko abenduaren 29an, Nora Pérez: *Aprendizajes de la mano del IVAC-KREI: Apoyo a la investigación.*
- 2025eko ekainaren 6an, Aitor Jiménez: *Los delitos del capitalismo digital.*
- 2025eko maiatzaren 29an, Gloria María Gállegok eta Camila de Gamboa: *Mujeres en cautiverio en la guerra colombiana: bajo el doble horror del secuestro y la violencia sexual.*
¿Cómo reparar la inhumanidad? La importancia del caso basado en la violencia de género: activismo, expectativas y riesgos.
- 2025eko apirilaren 30ean, Kian Barghuti: *La contribución de los podcasts "Criminología y sociedad". Una mirada al conjunto de lo realizado y a los retos de la entrevista con objetivo de concienciación y difusión.*
- 2025eko apirilaren 7an, Devi Yerga (Kriminologiaren Euskal Institutuko doktorego aurreko ikertzailea), Malena Rocío Maceira (Kriminologiaren Euskal Institutuko doktorego aurreko ikertzailea) eta Andrea Lideth Sánchez (UPV/EHUko doktorego aurreko ikertzaileak): *Metodologías feministas en la investigación criminológica: violencia estatal, de género y sexual.*
- 2025eko martxoaren 25ean, Ane Arca: *Evaluación externa de un programa de terapia asistida con perros con personas en exclusión social: Retos metodológicos y resultados.*
 - Institutuko ikertzaileek beste zentro batzuetan egonaldiak egitea sustatzea eta kanpoko ikertzaileak hartzea

IVAC-KREIko kideek ikerketa egonaldiak egin dituzte kanpoko zentroetan, hala nola hauek:

- **Helene Colomo:** Centre de Documentation et de Recherches Européennes - CDRE, Centre d'Excellence Jean Monet, , Baiona (Frantzia).
- **Ana Pérez Machío:** Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Zuzenbideko Fakultatea (Albacete campusa).
- **Gema Varona Martínez:** Inter-University Center Dubrovnik, Montrealgo Unibertsitatea, University of Tartu (Estonia) eta University of Galway (Irlanda).
- **Izaskun Ibabe:** Universidade de São Paulo (Brasil).

Gainera, Brasilgo magistratu baten doktorego ondoko egonaldia egin du IVAC-KREIn:

- Lankidetza-hitzarmena Brasilgo Minas Gerais estatuko justicia auzitegiko Escuela Judicial Juez de Apelación Edésio Fernandes eskolaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean, **Carlos Frederico Braga da Silva** doktorego ondoko ikertzaile eta magistratuak bi urteko ikerketa egonaldia egiteari buruzkoa (2024-2025). Ikertzaileak lankidetza hori luzatzeko interesa adierazi du.

1.2 helburua: Bikaintasuneko ikerketa sustatzea, diziplina anitzekoa, jarduera zientifikoa nazioartekotzen lagunduko duena

- IVAC-KREIko ikertalde egonkorrei eta Institutuko Kontseiluaren oniritzia lortzen duten ikertalde berrien ekimenei laguntzea

Hauek dira 2023an A mailako talde kontsolidatu gisa berritutako Institutuko ikertaldeak (Eusko Jaurlaritz):

12. **Zientzia Kriminaletako Ikerketa Taldea (GICCAS)**. 2003an sortu zen. Ikertzaile nagusiak José Luis de la Cuesta eta Norberto De la Mata irakasle eta h.c. doktoreak dira. Hauek dira ikerketa ildo nagusiak: politika kriminala eta praktika penalak, segurtasun politikak, justizia biktimala eta justizia errestitutiboa, drogen eta adikzioen alderdi juridiko-kriminologikoak, eta torturek eta tratu txarrek eragindako biktimizazioa.
13. **Kriminologia Aplikatuako Ikerketa Taldea (CRIM-AP)**. Ikertzaile nagusia: César San Juan Guillén irakasle doktorea. Gaur egun, ikerketa lerro hauek nabarmentzen dira: Prozesuak: Adimen emozionala. Delitu karreran atzera egitea; Urratzea: gazte delinkuentzia; Jokabide agertokiak: sexu-erasoak eta gizartearen aurkako portaera vs. hiri berritzailea.

- **Institutuko ikertaldeen edo ikertzaileen arteko lankidetza bultzatzea, jakintza arlo desberdinetakoak, taldeen diziplinarteko izaera areagotuz eta haien inpaktua eta ikusgarritasuna erraztuko duten baterako proposamen handiak landuz**

- Antonio Beristain Katedra

2010ean sortu zen, IVAC-KREIren barruko programa espezifiko gisa, eta Antonio Beristain Ipiña h.c. dok. ugariko doktorearen memoria betikitzea eta biktimen aldeko lanean jarraitzea du helburu. Virginia Mayordomo Rodrigo irakasle doktoreak koordinatzen du katedra. Katedrak, bere webgunearen bitartez (<https://www.ehu.eus/eu/web/ivac/aurkezpena-antonio-beristain>) Antonio Beristain irakaslearen lanak, idatziak, liburuak eta artikulak bildu eta hedatzen ditu, bere

ikerlan eta irakaslan oparoaren erakusgarri.

Halaber, katedraren bitartez biktimologiarekin lotutako jarduera akademikoak sustatzen dira, bai irakaskuntzaren arloan, bai ikerketaren arloan, bai unibertsitate hedakuntzaren arloan.

Katedrak urtero egiten du **Antonio Beristain h.c. doktorearen oroimenezko topaketa**. 2025ean, XV. Topaketa Biktimologikoa egin zen 2025eko azaroaren 18an, *Victimización en contextos organizacionales e institucionales* izenburupean. Hauxe izan zen egitaraua:

9:15-9:45 Inaugurazioa: Ongietorria, biktimazioari eta terrorismoari buruzko ikerketen emaitzen aurkezpena eta UNDOC oedezkariaren (Viena) esku-hartzea

-Virginia Mayordomo Rodrigo and.

UPV/EHUko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra eta AB Katedrako zuzendaria

-Gema Varona Martínez and.

Doktore ikertzaile iraunkorra, *Esperientzia Traumatikoetako Biktimekin Lan Egitea* graduondoko zuzendarikidea

IVAC-KREIko zuzendaria eta Biktimologiako Mundu Elkarteko presidentea

-United Nations Office on Drugs and Crime-ko (Viena) ordezkaria

9:45-11:15 Mahai-ingurua: *Victimización secundaria en violencia de género dentro y fuera de los campus*

Moderatzailea: José Luis de la Cuesta Arzamendi jn.

Kriminologiaren Euskal Institutuko Ohorezko Batzordeko presidentea, Zigor Zuzenbideko Nazioarteko Elkarteko ohorezko presidentea

Hizlariak:

Mar Gómez Gutiérrez and.

Psikologiako irakaslea. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Revista de Victimología/Journal of Victimology aldizkariako editorekidea

Alejandro de Miguel Álvaro jn.

Psikologiako irakaslea. Valladolideko Unibertsitatea

Helena Soleto Muñoz and.

Carlos III.a Unibertsitateko Zuzenbide Prozesalean katedraduna

11:15-11:30 Etenaldia

11:30-13:00 Mahai-ingurua: *El impacto de informar y acompañar en casos de abusos sexuales en la Iglesia*

Moderatzailea: Isabel Trespaderne Beracieto

Zuzenbideak doktorea, UPV/EHUko Erizaintzako irakasle titularra

Hizlariak:

Teresa Compte Grau and. *Betaniako* presidentea

Julio Núñez Montaña jn. Kazetaria. *El País*

Alberto José Olalde Altarejos jn.

Gizarte Langintzako irakasle agregatua eta justizia errehabilitatiboko erraztailea. JEkoTeoria eta Praktikako laborategia (IVAC-KREI)

13:00-13:25 Antonio Beristain Ikerketa Biktimologikoko Sariaren XIV. edizioko saria ematea

Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta.

Virginia Mayordomo Rodrigo and.

UPV/EHUko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra eta AB Katedrako zuzendaria

13:25-13:30 Biktimologiako Euskal Elkarteko ohorezko bazkidea izendatzea

Javier Gómez Zapiain jn.

Biktimologiako Euskal Elkarteko presidentea eta UPV/EHUko Sexualitatearen Psikologiako irakaslea

13:30-15:00 Bazkaria

15:00-17:30 *From here* filmaren proiektzioa eta eztabaida. Diskurtso migratzaile garaikidearen mikrokosmosa

Moderatzailea: Leyre Padilla López

IVAC-KREIko doktore eta ikertzaile kolaboratzailea, eta *Esperientzia Traumatikoetako Biktimekin Lan Egitea* graduondoko irakaslea

Hizlariak:

Ane Viana Salinas.

Doktorego ondoko ikertzailea (GICCAS taldea, IVAC-KREI), bidaidarik gabeko atzerriko adingabeetan espezializatua eta *Esperientzia Traumatikoetako Biktimekin Lan Egitea* graduondoko irakaslea

Christina Antonakos-Wallace

Filmeko zuzendaria

Chelo Álvarez-Stehle
Filmeko inpaktuko produktorea

17:45-18:15 Etenaldia

18:15-20:00 IVAC-KREIko IKASTURTEARI HASIERA EMATEKO EKITALDIA

-Ekitaldiari hasiera ematea eta Eusko Jaurlaritzako agintarien agurra

-Memoria akademikoaren laburpena Juan Aldaz Arregui IVAC-KREIko idazkari akademikoaren eskutik
UPV/EHuko Soziologiako irakaslea eta IVAC-KREIko hainbat proiektutako ikertzaile nagusia

-Jean Pinatel Sariaren XIX. edizioko saria ematea

-**IVAC-KREIko ohorezko bazkidea izendatzea eta irekitze hitzaldia** haren eskutik: *Violencia de género on/off line y victimización terciaria. Un diálogo con estudiantes*

Hizlaria: Ana Isabel Cerezo Domínguez and.

Malagako Unibertsitateko Zigor Zuzenbidean katedraduna

-Ekitaldiaren amaiera

Joxerramon Bengoetxea Caballero jn.

UPV/EHuko errektorea

Zuzenbideko Filosofian katedraduna

- **DMS International Research Center** nazioarteko ikerketa zentroa

1993ko otsailaren 17an sortu zen, Nazioarteko Kriminologia Elkartearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, eta César San Juan irakasle doktoreak zuzendu zuen.

Delinkuentzia, Marjinalitatea eta Gizarte Harremanei buruzko Nazioarteko Ikerketa Zentroaren funtzioak honako hauek dira:

1. Delinkuentziaren eta marjinalitatearen arloan era guztietako azterlan eta ikerketa zientifikoak sustatu, gauzatu eta zabaltzea, gizabanakoen eta herrien garapen ekonomiko, sozial eta kultural bidezkoagoa eta baketsuagoa lortzeko helburuarekin.
2. Gaur egungo munduko gizarte-harremanen arazoak aztertzea eta konponbide egokienak proposatzea.
3. Ikertzaile gazteen prestakuntza bultzatzea.
4. Ikasleen eta ikertzaileen trukea sustatzea beren jardueraren esparruan, beste herrialde eta kultura batzuetako bekaadunak eta ikertzaileak hartuz.
5. Delinkuentziari, marjinalitateari eta gizarte-harremanei buruzko ezagutzak zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten bilera zientifikoak, ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea.
6. Harreman akademikoak eta ikerketakoak izatea Kriminologiaren Nazioarteko Elkartearekin, Montrealgo Kriminologia Konparatuaren Nazioarteko Zentroarekin, Genovako Kriminologia Klinikoaren Nazioarteko Zentroarekin eta haren ekintza eremu berean lan egiten duten nazioarteko gainerako zentro eta erakundeekin.
7. Egindako ikerketak argitaratzea.

8. Kriminologiako nazioarteko doktorego programa bat ezar dadin sustatzea.

Hauek dira DMS International Research Centerren ikerketa lerro nagusiak:

1. Prozesuak: Adimen emozionala. Delitu karreran atzera egitea.
2. Urratzea: Gazteen delinkuentzia.
3. Jokabide-agertokiak: sexu-erasoak eta gizartearen aurkako portaera vs. hiri berritzailea.
4. Diseinuaren eta analisiaren eredu aurreratuak.

DMSk argitaratzen duen *International E-Journal of Criminal Sciences* aldizkariaren bidez zabaltzen dira egindako ikerketa zientifikoen azterlanak eta emaitzak.

Halaber, ***Psikologia Juridiko eta Forentsearen Unitatearen*** eta ***Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktikaren Laborategiaren bidez (LJR)***, bilatzen den interakzioa sustatzen da IVAC-KREIn.

- ***Psikologia Juridiko eta Forentsearen Unitatearen*** helburu nagusia Justizia sistemari eta gizarteari peritazio psikologikoetan kalitatezko zerbitzua eskaintzea da. Unitateko taldea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Juridikoko, Kriminaleko eta Auzitegiko Psikologiako adituek osatzen dute.

- ***Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktikaren Laborategia (LJR)*** 2016an sortu zen IVAC-KREIren baitan. Unibertsitateko eta Unibertsitatetik kanpoko pertsona talde batek osatzen du, eta justizia errestauratiboaren aplikazioa aztertzen dute hainbat arlotan. Horrela, praktikari buruzko analisiak eskaintzen dituzte eta haren garapena sustatzen dute, bereziki gizartean ahaztuen edo diskriminatuen dauden kolektiboetan. Gatazka pertsonalak, taldekoak, antolakuntzakoak, lanbide artekoak, kulturalak, sozialak eta abar lantzen dira. EHUren eskaripean, *pro bono* esku hartzen ari da gure unibertsitatearen barruko gatazketan.

Bestalde, ikerketa mintegi iraunkor bat egiteak ardatz hori ere sustatzen du, bai eta Antonio Beristain Ipiña eta Jean Pinatel sarietan parte hartzea zabaltzea eta sustatzea, eta kanpoko beste batzuetan parte hartzea ere, hala nola Javier Gómez Elosegui sarian. Institutuaren helburua da, halaber, IVAC-KREIko kide izan daitezkeen ikertzaileen parte-hartzea bultzatzea.

- **Tokiko, estatuko eta nazioarteko ospe handiko ikertaldeekin harremanak estutzea, mugikortasuna, trukea eta lankidetzako ikerketa proiektuak sustatuz.**

Alde horretatik, oso aberasgarria da ikerketa sareetan parte hartzea, eta IVAC-KREIko kide batzuk sare hauen kide dira:

- Gema Varonak *Red EmpiriC+: una criminología por y para una sociedad digitalizada* sarean parte hartzen du; ikerketa-sareen 2022ko deialdia. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. INa: A. I. Cerezo, <https://www.uma.es/instituto-andaluz-de-criminologia/info/146295/red-empiric/> (2023-2025).
- RED2022-134101-T Bikaintasun Sarea, “Emakumeen aurkako indarkeria: erronka berriak”, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatua 2023an eta 2024an. Ana I. Pérez Machío irakasleak zuzendutako UPV/EHUko ikertaldea, bederatzi unibertsitateen taldean integratua.
- Adimen Artifizialari buruzko Europako mugaz gaindiko sarea, Paueko Unibertsitateko eta Aturrialdeko Herrialdeetako Europako Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak koordinatua, Euskal Herriko Aglomerazio Erkidegoak finantzatua, non IVAC-KREIko zenbait kidek parte hartzen duten.

Horrez gain, IVAC-KREI Munduko Bitartekaritza Foroaren XIII. Konferentziarako erakunde deitzaile aukeratu dute. Organismo hori atzerriko hainbat unibertsitatek sortu zuten. Ekitaldia Donostian izango da, 2026ko azaroan (<https://www.ehu.eus/eu/web/ivac/munduko-bitartekaritza-foroaren-xiii-konferentzia>); hiru hizkuntza ofizial izango dira, euskararekin batera.

• **Institutuaren ikerketa lerroak mantentzea eta garatzea.**

2024-2028 aldian, Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) bere ikerketa lerroak mantentzeko eta garatzeko konpromisoarekin jarraituko du, testuinguru globaleko aldaketa sozial, zientifiko eta teknologikoetara egokituta. Ikuspegi estrategiko baten bidez, zeharkako ekintzak sustatu dira, Institutuaren ikerketa ildoak lotzen eta indartzen laguntzeko, diziplinarteko ikuspegiak integratzen eta jakintza arlo berriak esploratzen lagunduz. Etengabeko garapen prozesu hori ikerketa lerroen aldizkako ebaluazioan oinarritu da, kriminologian eta lotutako diziplinetan sortzen ari diren erronkekin lerrokatuta mantentzen direla ziurtatuz.

Era berean, ondoren zehaztuko diren ikerketa proiektu guztiek IVAC-KREIren ikerketa ildoen bilakaerarekiko eta sakontzearekiko konpromiso hori islatzen dute. Egindako eta abian dauden proiektu horiek erakusten dute Institutuak gaitasuna duela eskaera berrietara egokitzeko eta bere ikerketa lerroen ikusgarritasuna eta eragina sustatzeko, bai estatuan, bai nazioartean. Horrez gain, ikerketaren arloko integritatearen eta etikaren ALLEA Kodeari buruzko prestakuntza eta haren aplikazioa azpimarratzen da (<https://www.ehu.eus/eu/web/ivac/osotasuna-ikerketan-jokabide-kodea>).

• **Nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoetako deialdietan parte hartzea zabaltzea, indartzea eta babestea.**

- Institutuko taldeek 2025ean deialdi lehiakorretan lortutako ikerketa proiektu hauek izan dituzte aktibo, eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako proiektuak nabarmendu dira:
